 LIZARTZAKO UDALA	LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA BEHIN BETIKO ONARPENA		
	2013ko APIRILA	3.1	ARAUDI URBANISTIKO OROKORRA

Lizartzako Arau Subsidiarioen 4. artikularen aldaketa proposatzen da, ondorengo edukia izango duelarik:

4. art.- Arauetako elementuen aldaketarako baldintzak


1.- Elementutzat hartuko dira Planeamendu Erregelamenduaren 154. artikuluan 4. apartatuan definitzen direnak. Dagokien proiektua 161. artikularen arabera osatu eta tramitatu beharko da, eta bere kasuan, aipatutako Erregelamenduko 162. artikularen arabera.

Arau hauetan finkatutako azalera eraikigarria, etxebizitza kopurua edo aprobetxamenduen intentsitatea handiagotzera jotzen duen edozein aldaketak, 1976ko Lurzoru-Legearen 49.2 artikuluan araututako eskakizun substantibo eta prozedurazkoak bete beharko ditu.

2.- Arau subsidiario hauen aldaketa egitasmo orok, eragindako eremuaren eraikigarritasun urbanistikoaren gehikuntza bat planteatzen duenean, indarrean dagoen legediak, honelako kasuetarako, dituen irizpideekin bat etorri beharko du.

Betiere, indarrean dagoen araudi urbanistikoak dioenarekin bat eginda, udaletxeak, Arau subsidiario hauen aurreikuspenaren ondorioz lorturiko espazio libre orokorren (sistema orokorra) zuzkidura soberakinen kontsiderazioa eta neurketa adostu ahal izango du, etorkizunean eman daitezkeen aldaketek, eraikigarritasun urbanistikoaren hazkunde bat planteatzerakoan, honelako espazio libre orokorren beharrik izango balute.

Aurreko irizpideak betetzen dituzten Arau Subsidiarioen aldaketa egitasmoetan, udaletxeak irizpide hau erabiltzea erabakitzen duenean, araututako estandarra betetzat joko da. Kasu guztietan, txosten horiek, gai

 LIZARTZAKO UDALA	LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA BEHIN BETIKO ONARPENA		
	2013ko APIRILA	3.1	ARAUDI URBANISTIKO OROKORRA

honekin loturik, eta indarrean dagoen legediaren irizpideekin betetzen dutela justifikatu beharko dute (2003ko ekainaren 3ko, Estandar urbanistikoaren dekretuaren 20.4 artikulua)

Soberakin hori zehazteko, indarrean dagoen legedi urbanistikoak ezartzen duen arauzko estandarra hartuko da erreferentzia bezala¹.

Aipaturiko arauzko estandarra, Lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen "78.1" artikulua ezartzen duena da, hain zuzen ere: 5 m²/biz. Bestalde, 2008ko ekainaren 3ko Premiazko neurrien dekretuko "35.4" artikuluan, espresuki aurreikusten da planeamendu orokorraren aldaketa kasuetarako " (...)espazio libreen sistema orokorraren aurreikuspen handiena plangintzan ezarritako legezko gutxienekoari dagokionez egon daitekeen soberakina kontuan hartu gabe gauzatuko da, plangintzak soberakin hori zenbatu eta kudeatzea esanbidez aurreikusten duenean, eta, gainera, soberakin horrek xede honetarako kokapen egokia duenean izan ezik". Arau Subsidiario hauen aurreikuspenetan azaltzen den espazio libre orokorraren soberakina dokumentu honen memoriaren 1.3 atalean azaltzen dena da.